

**BASQUE CULINARY CENTERek eta DONOSTIA KULTURAK lankidetzak akordio bat sinatu dute, Gastronomiaren eta Kulturaren arteko loturak estutzeko xedez.**

***Basque Culinary Center-eko ikasleek Donostia Kulturaren txartela jasoko dute, haren abantailaz baliatu ahal izateko. Eta Donostia Kultura txartelaren jabeek, berriz, orain arteko onurez gainera, % 10eko deskontua izango dute Klub ikastaroetan eta Tabakalerako LABe-Digital Gastronomy Lab-en.***

Bi erakundeok bi helburu dituen akordioa sinatu dute: batetik, Donostiako jarduerak eta kultur etxe eta instituzioak irispidean jartzea Basque Culinary Center-eko ikasleei; bestetik, Gastronomiarekin zerikusia duten abantailak eskaintzea Donostia Kultura txartelaren jabeek. Abantaila hauek, besteak beste: % 10eko deskontua BCC Culinary Club-ek antolatzen dituen ikastaro guztietan, deskontuak Tabakalerako LABe Restaurant-en, eta, gainera, Basque Culinary Center-eko gastronomia-esperientzietarako zozketan parte hartzea urtean zehar.

Basque Culinary Center-ekin sinatutako akordioa beste urrats bat da Donostia Kulturarentzat, hiritarrei kulturarako irispidea errazteko lanean, eskaintza ahalik eta zabalaren eta arreta gero eta pertsonalizatuagoaren bitartez. Basque Culinary Center-eko ikasleek errealitate multikulturala osatzen dute –gaur egun, 32 herrialdeetatik datozen ikasleak ditu erakundeak–, eta akordio honen bidez ikasleok sendotu egingo dituzte hiriko kultur bizitzarekiko harremanak.

Onura berri hauek gehitu egiten zaizkie DKko bazkideek zenbait kultur entitate eta eragiletan lehendik zituztenei, hala nola Chillida Leku, Zinemaldia, Aquarium, Udako Ikastaroak, eta abar.

Honela dio Joxe Mari Aizegak, Basque Culinary Center-eko zuzendari nagusiak: “Akordio honek indartu egiten du Gastronomiaren eta Kulturaren arteko lotura sinbiotikoa. Gure ikasleek Donostiako kultur ekinbideak ezagutu eta haietan parte hartuko dute, eta, horrekin batera, hiritarrek Basque Culinary Center-eko jarduera eta gune gastronomikoetara hurbiltzeko aukera izango dute”. Jaime Otamendik, berriz, Donostia Kulturako zuzendari kudeatzaileak, honela dio: “Beste urrats bat da hau Donostia Kulturak duen helburua betetzeko: kultura hiritarrei hurbiltzea; kasu honetan, nazioarteko gazteei. Eta beste urrats bat da, halaber, lankidetzak sortzen jarraitzeko, lankidetzak horiek leku paregabe bihurtzen baitute Donostia, hiri bereziki aktiboa izaki kultur arloan”.

Gaur egun, **100.000tik gora dira Donostia Kulturaren bazkideak**, DK txartelaren jabe denak ere, eta horietatik % 77 donostiarrak (\*).

Txartel horren jabeak honako zerbitzu hauetaz balia daitezke gaur egun:

- Liburuak, DVDak eta ikus-entzunezko zein irakurtzeko beste material batzuk doan mailegatzea Liburutegien Sarean eta Donostiako kultur etxeetan.
- Udal wifia doan (wifi\_Donostia\_SS).
- Asteroko sarrera-zozketak hainbat emanalditarako.
- Hileko agenda jasotzea, dela paperean, dela posta elektronikoaren bidez, Donostia Kulturaren programazio osoarekin.
- Buletinak jasotzea, bazkideek beren online kontuaren bidez jaso ditzaten aukeratutako zerbitzuei buruzko informazioa, promozioak eta eskaintza pertsonalizatuak: zinea, antzerkia, dantza, musika, artea, haurrentzakoak, literatura eta jaiak.
- Deskontuak kultur zerbitzuetan:
  - % 10ekoa Donostia Kulturaren emanaldi eta gune guztietan (bi sarrerarako, bai lehiatilan eta bai internetez).
    - Donostia Kulturaren programazio osoan: Victoria Eugenia Antzokia, San Telmo Museoa, Heineken Jazzaldia, dKLUBA, Antzoki Zaharra, Beldurrezko Zinemaren Astea, Giza Eskubideen Zinemaldia, dFERIA, Intxaurren & Gazteszena & Imanol Larzabal (Lugaritz), Literaktum, eta abar.
    - Ikastaro eta argitalpenetan.
    - San Telmo Museoko sarreretan eta argitalpenetan.
    - % 50 arte emankizun berezietan.
  - % 10 hiriko beste kultur emankizun batzuetan:
    - Donostiako Zinemaldian.
    - Basque Culinary Center-en
    - UPV/EHUko Udako Ikastaroetan (-% 50)
    - Aquarium-ean.
    - Chillida Lekun.

DONOSTIA KULTURA  
kultura\_komunikazioa@donostia.eus  
943 481 161  
donostiakultura.eus

BASQUE CULINARY CENTER:  
VK Comunicación  
Xusane de Miguel Ortiz  
Tel. 944 01 53 06. Mugikorra: 629 75 33 36.  
Helbide elektronikoa: [xusane@vkcomunicacion.com](mailto:xusane@vkcomunicacion.com)